

Duela urtebete, 2007ko irailean, Lan Ministerioak etxeko lanaren bazterketarekin bukatuko zuen lege-erreforma bat iragarri zuen, sektoreari Langileen Estatutuaren lan-baldintzak onartuta eta bere eskubideak Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrekoekin berdintzeko prozesu bat irekita.

## **Egungo egoera**

Proposaturiko erreforma ez zen nahikoa izan, nahiz eta aurrerabide bat izan. Hala ere, ez da aldaketa bat bera ere egon, eta etxeko lanaren panoramak betikoa izaten jarraitzen du (aurtengo lehenengo 9 hilebeteko estatistikei begiratu).

Nabarmentzekoa da barneko langileen egoera, gehienak etorkinak, haietariko batzuk lan-baimenik gabe eta neurri handiagoan gehiegikeriak pairatzeko arriskupean.

## **Burutzen duten lana**

Mendekotasuna duten pertsonen zaintza etxeko langileen eskuetan uzten ari da, erabat urria den etxeko laguntza ordu kopuru bat emanaz artapena betetzeko: hilabetean 77 ordu mendekotasun handian eta ia inolako artapenik asteburuetan.

Mendekotasun legeak tranpa dauka, senideen zaintzarako prestazio ekonomiko bat ezartzean (2008 urtean 507-329 € artekoa hilean, mendekotasun mailaren arabera). Prestazio ekonomikoak Administrazioa zaintza-zerbitzuak ematetik libratzen du. Kasu gehienetan, prestazio ekonomikoa euren senideak pertsonalki zaintzen ez dituzten pertsonen ematen ari zaie, eta hauek lana etxeko langile baten esku uzten dute. Prestazioaren dirua langile honen zerbitzuak ordaintzera bideratzen da, baina ez dago lan-baldintzen gaineko kontrolik, eta ez da haien alta Gizarte Segurantzari ziurtatzen.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak bi urtera arteko umeak zaintzeko kontrataturiko etxeko langileen gizarte segurantza diruz laguntzen ari da, baina lanaldiari, soldadari edo atsedenaldiari buruzko baldintzak kontrolatu gabe.

## **Enplegu-agentziak**

Lan-zerbitzu publikoek, INEMk eta Lanbidek, ez dute inolako interesik etxeko lanean bitartekari izateko, beraz, enpleguaren zatirik handiena agentzia pribatuen bitartez ematen da.

Beste alde batetik, etxeko langileen kontratazioa legez kanpo eta zigorgabetasun osoz aritzen diren enplegu-agentzia pribatuen esku utzi

da. Eusko Jaurlaritzaren Lan Saila kontratazioan legezko baldintzak bermatzen ez dituzten agentziak bitartekari izatea baimentzen ari da, eta hauek egiten dutena langileekin trafikatu besterik ez da, bitartekari aritzeagatik gehiegizko komisioak kobratuta.

Etxeko lanari lan eta gizarte segurantzarako eskubideak ziurtatuko dizkion lege-erreforma bat exijitzen dugu, eta gutxienez:

1.- Lan-kontratuan lanaldiaren iraupena eta eguneroko banaketa zehazteko betebeharra. Soldataren ordainagiria ematea.

2.- Kanpoko eta barneko lanean, astero gehienez 40 orduko lanaldia, kasu berezietan luzatu ahal izango dena presentzia arduratsua eskatzen duten zaintza-lanetarako. Ordu guztiak ordaintzeko betebeharra enplegatzailearen kontura. Beste langileena bezalako asteko eta gaueko atsedena.

3.- Eskudirua ez izatea inoiz lan egindako lanaldiarekiko lanbide arteko urteko gutxieneko soldata baino txikiagoa.

4.- Etxeko lanaren Gizarte Segurantzako Erregimen Berezia desagertzea eta Erregimen Orokorrera igarotzea. Bereziki:

Gizarte Segurantzaren lehenengo lanordutik alta emateko eta kotizatzeke betebeharra, eta kasu guztietan kotizazio-zamen banaketa enplegatzailearen eta langilearen artean.

Gaixotasun arruntagatik aldi baterako ezintasun prestazioa erregimen orokorrekoarekin berdintzea, hau da, bajaren laugarren egunetik kobratzea. Langabezia prestaziorako eskubidea.

Lan-istripuaren onarpena. Lan-osasunarekiko enplegatzailearen betebeharren zehaztapena, ostatu eta mantenu baldintzak barne.

5.- Atzerriko pertsonak egiten ari diren lana aintzat hartzea, Gizarte Segurantzaren alta emateko duten eskubidea barne.

6.- Lan eskariari eta eskaintzari enplegu zerbitzu publikoen bidez erantzutea eta agentzia pribatuak ixtea.

**Etxeko Langileen Elkarteak; Harresiak Apurtuz; Bizkaiko Emakume Asanblada**  
**CGT, ELA, ESK, LAB, STEE-EILAS.**